# Intxaurrondoko Kaldero Jaun jaiak




### Ostirala 30

**17.00** Merkatu Txikia, Sagastieder pasealekuan
**18.00** Kaldero Jaun panpinarekin erromeria. Irteera, Sagastieder pasealekuan
**20.00** Pregoia eta koadrilen aurkezpena
**20.30** Poteo herrikoia, Bostak txarangaren laguntzaz
**20.30** Buruhandiak auzoan zehar
**23.00** Dantzaldia Preludio orkestrarekin
**24.00-04.00** Beldurrezko zinea, gaztelekuan. “La guarida” eta “La resurrección del mal” filmeak ikusi ahal izango dira
**00.30** Zezensuzkoa eta dantzaldiaren jarraipena

### Larunbata 1

**10.00** Diana trikitilariekin auzoan zehar

## 2000ko Kaldero Jaun jaiak

Joan den ostegunean, hilak 29, hasi ziren Kaldero Jaun jaiak Hego Intxaurrondon. Besteak beste, Oktabiotarrak, Bixigarri eta Sagastitxulo koadrilek, Intxaurrondo Berriko emakume taldeak, Intxaurdi kirol taldeak eta Auzo elkarteak parte hartu dute jaion antolaketan. Ohi bezala, Kaldero Jauna izango da jaion gidaria. Ostiralean 18.00etan koadriletako kideek jaietarako alkandora koloretsua jantziko diote Kaldero Jaunari. Ostean, txapela buruan, batetik bestera eramango dute erromeria ibiltarian.



ITXURA eta ESTILOA
ILEAPAINDEGIA ESTETIKA MANIKURA MAKILAJEA SOLARIUMA

Soriñez
ILEAPAINDEGIA GIZON-EMAKUMEENTZAT
GALIZIA PASEALEKUA 9 • Tfnoa.: (943) 28 73 56 (INTXAURRONDO) DONOSTIA



ZABALTOKI
taberna
Bazkariak eta afariak
Zubiaurre Pasealekua, 50
INTXAURRONDO



JOSE IGNACIO INCIARTE
Lorazantza zentroa
Barne eta kanpoko landareak eta lorazantza
ORDUTEGIA
Aste egunetan: 09.00etatik-13.00etara eta 15.00etatik-19.30etara
Larunbatetan: 09.00etatik-13.00etara eta 16.30etatik-19.30etara
Igandetan: 10.00etatik-13etara
Otxoki pasealekua 68 • Tfnoa.: (943) 27.01.82

**11.00** Rokodromoa eta tirolina begiraleekin, Arkaizeta parkean
**12.00** Tripontzien II Futbol Txapelketa
**12.00** III. Argazki Rallyaren erakusketa, Sagastieder pasealekuan. Leku berean, Eritrearen aldeko Merkatu Txikia
**13.00** Kalejira eta poteo herrikoia Bostak txaranga eta buruhandien laguntzaz
**13.00** Ronaldo pailazoaren emanaldia
**16.00** VII. Mus Txapelketa
**17.00** Entzierro txikia Busca Isusi eta Sagastieder bitartean
**17.00** Rokodromoa eta tirolina begiraleekin, Arkaizeta parkean
**17.30** Tripontzien II. Futbol Txapelketako finalak eta sari banaketa
**18.00** Herri kirolak: Iñaki Perurena eta Iñaxio Perurena aita-semeak, Fausto Mugerza eta Itziar Goenaga
**19.30** Txalaparta erakustaldia
**19.30** Argazki rallyaren sari banaketa
**20.00** Sardina jana
**23.00** Dantzaldia, "Avenida" orkestrak alaiturik
**00.30** Zezensuzkoa

## Igandea 2

**10.00** Diana
**10.00** Haurren II. Arrantza Txapelketa, Pasaiako badian
**11.00-14.00** Haur parkea Sagastieder pasealekuan: puzkarriak, karts-ak...
**12.00** Meza Andramari parrokian
**12.30** Kalejira Trintxerpe-Pasaiako Musika Bandak alaituta
**13.00** Trintxerpe-Pasaiako Musika Bandaren kontzertua
**14.15** Arrantza txapelketaren sari banaketa
**16.00-19.00** Haur parkea
**16.30** VII. Toka eta Bote Txapelketa
**17.00** II. Entzierro Txikia
**17.30** Euskal dantzak
**18.30** "Virgen de Guadalupe" taldearen dantza eta kantu emanaldia. Ostean, Extremadurako produktuen dastaketa
**19.30** Goloka taldearen "Goloka Park" kale ikuskizuna
**21.30** Kaldero Jaunari epaiketa eta jaien amaiera

### Denontzako ospakizunak

Igandean amaituko dira Kaldero Jaun jaiak. Igandera arte mota guztietako ospakizunak egongo dira, bai helduentzat eta baita haurrentzat ere. Ezin aipatu gabe utzi, Intxaurrondo auzo gaztea denez, haurrentzako eskaintza zabala dagoela: buruhandiak, rokodromoa, pailazoen emanaldia, zezen txikiak.... Igandean, hilak 30, esaterako, haur parkea ipiniko dute Sagastieder pasealekuan. Hala ere, helduek ere izango dute zer gozatua: herri poteoak, dantzaldiak, beldurrezko zinea, argazki rally-a, mus txapelketa... Larunbatean, hilak 29, herri kirolak izango dira, Perurena aita-semeekin eta Fausto Mugerzarekin.



ONENA taberna
Baratzategi kalea 5
20015 DONOSTIA
Tfnoa.: (943) 27 02 44

Sagastieder pasealekua 16
Tfnoa.: (943) 274800
DONOSTIA
ERAZTUN bar
Ondo pasa jaietan!

IZEI Kafetegia
Baratzategi pasealekua 22
Tfnoa.: (943) 27.93.91 • HEGO INTXAURRONDO
• Gosari bereziak
• Sandwichak
• Hamburgesak
• Ogitartekoak
• Irabiaki naturalak
• Astelehenetik ostiralera eguneko menua
• Ostiral eta larunbat gauetan irekita

MARIO taberna
KAZUELATXOAK ETA EGUNEROKO MENUA
Zubiaurre pasealekua 56 • INTXAURRONDO • Tfnoa.: 943-27.75.55

GURE DENDA
ANIMALIENTZAKO JAKIAK ETA KONPLEMENTUAK
Jakiak
Konplementuak
Hegaztiak
Marraskariak
Narrastiak
Bartzategi kalea 36
20015 DONOSTIA
TFNOA.: (943) 28 70 00

Bidebieta

# Gaiztarro parrandan

Irutxulo

Datozen egunotan Gaiztarro inguruak egun pare batez besterik ez bada ere, jai kolorez apainduko dira. Duela sei urte, bertako bizilagunek egun bateko jaia antolatzea erabaki zuten. Jai hori izan zen Gaiztarroko jaien hazia.

*"Gabonetan Gaiztarroko dendari eta bizilagunek antolatuta jaiotza ipini zen. Jai egun polita igaro genuenez, uda partean beste zerbait egitea bururatu zitzaigun"* esan digu Angel Perez Varela jai batzordeko kideak.

Bizilagun eta dendarien lehen ekimen hari esker, Gaiztarroko jaiak sortu ziren, edo hobe esanda Gaiztarroko jaia, izan ere, aurtengora arte egun bateko jaia izan da.

*"KTEri diruz laguntzea eskatu genion, baina beren araudiaren arabera jaiek diruz laguntzeko gutxienez pare bat egunekoak izan behar dute. Beraz, hemendik aurrera jaiak bi egun iraungo ditu"* diosku Perez Varelak



Txantxillori ere asko gustatzen zaizkio Gaiztarroko festak

### Uhartea errepide artean

Hainbat urtetan Gaiztarrokoak inguruotako festa bakarrak izan dira, izan ere, Bidebietakoak azken urteetan ez dira egin.

*"Bidebietan aurten berreskuratu dituzte berriz ere jaiak. Aurtengora arte, beraz, auzoan gu izan gara guzti hau animatzen ibili garen bakarrak"* diosku Perez Varelak. Ez da lan makala.

Errepidearen alde batera Gaiztarrok Trintxerperainoko bidearekin egiten du topo. Beste aldera, berriz, N-1 errepidearekin. Gaiztarrok uhartea dirudi errepide artean, eta bertako jaiak oasi txikia porlanezko basamortuaren erdian.

Donostiako beste auzo gehienetakoak ez bezala, jaiok ez dute inolako loturarik santutegiarekin. Ez dira San Juan, ez San Pedro ezta Karmenak ere. Gaiztarroko jaiak dira eta kitto.

### Egitaraua

**Ostirala 30**
**16.00** Pilota finalak
**17.00** Haur jolasak: zaku lasterketa, zapi jolasa, magia saioa...
**19.00** Txupinazoa eta buru-handiak. Ostera haurrentzako txokolate jana eta Patxi Barrique malabaristaren saioa
**20.00** Txinrtxerpeko txistulariekin kalejira
**20.00** Mus txapelketako finala

**Larunbata 1**
**09.00** Txistularien jalejira
**10.00** Futbol txapelketako finala
**12.30** Berebil telegidatutako en lasterketa. Ondoren, txirrinda geldoen lasterketa
**15.30** Magoaren saioa
**16.30** Ginkana
**17.30** Sari banaketa
**18.00** Toka eta pote finalak
**20.30** Sardina eta tortilla jana
**23.00** Miramar taldeak alaitutako dantzaldia




• Argaltzeko sistema (Lipofit metodoa)
• Makilaje iraunkorra (bekainak, ezpainak, begiak eta orbainak)
• FREÜKMAN tratamenduak (akne, dermatitisa eta orbanak)
• Estetika medikuntza kontsulta
Zedro plaza 2 • DONOSTIA • Tfnoa.: 943-392051

BIKOTE
KAFETEGIA
Zedro plaza 2
Tfnoa.: 943-39 99 52

MENDIOLA IKASTETXE PUBLIKOA
Haur eta lehen hezkuntza
Bidebietako jaiak 2000
Serapio Mujika 16 • BIDEBIETA • Tfnoa.: (943) 395092